

EUSKADIREN AHOTSA. CON VOZ PROPIA.



Aitor
Esteban Bravo
atsegin dut 
atsegin dut 

MARIBEL VAQUERO Zarautz, 2023ko uztailaren 13an

Balioa izango duen diskurtso bakarra hizlariak bertan eskainiko duena izango da.
El único discurso válido será el pronunciado por el orador o la oradora en el acto.

Badira hamaika arrazoi EAJri botoa emateko. Hamaika arrazoi horiek 10 puntutan laburtu ditugu etxeetara botoekin batera iritsiko zaizuen esku-orrietan. Hamar arrazoi eta hauteskunde programa osatu bat, proposamen zehatzekin. Egun hauetan, herriz-herri azaltzen saiatzen ari garen programa. Hala ere, aitortu behar dizuet, bere zailtasunak dituela, komunikabideek eta kanpainako mezuek bi aukeretara mugatu nahi dutelako hauteskunde lehia. Sanchez edo Feijóo. Pedro edo Alberto. Eta gure hautua ez da bata ez bestea: EUSKADI da!!

Horregatik, gaur, zuen laguntza eskatzera natorkizue. Zuen laguntza, han eta hemen, norberak bere etxe, familia, lankide eta auzotarrei azaltzeko, Hemen, Zarautzen, Gipuzkoan eta Euskadin jokoan duguna ez dela Estatuko gobernuko buru nor izango den, Hemen euskal interesen defentsa nork egingo duen dela jokoan duguna!

Oso garrantzitsua da botoa ematera joatea. Eta boto hori euskal klabean ematea. Euskadiren ahotsa bitartekaririk gabe eta iraganeko motxilarik gabe eramango duen Alderdiari. Eusko Alderdi Jeltzaleari!

Eta hitz egiten duzuen pertsona guzti horiei esan ere, hemen gaudenok, EAJren hautagaiok, Euskadiren eta bere herritarren beharren defentsan dugun onena emateko konpromisoa hartuta goazela Madriler! Gure ipar-orratza Euskadi delako.

10 arrazoi beraz, EAJri boto emateko eta horietatik lehena, Euskal nazio nortasuna, bere eskubide historikoak, erakundeak eta autogobernuaren defentsa egiten dugun alderdia garena da.

AUTOGOBERNUAREN DEFENTSAren inguruan temati gabiltzala pentsa dezake baten batek. Baina gure "insistentzia" ez da kanpainako lelo huts bat. Benetako arrisku baten aurrean gaude.

Gurea egunero defendatzen ez badugu, estatuko alderdiek, estatu uniforme eta berdin batean desitxuratuko dituzte gure Eskubide Historikoak, Erakundeak eta Autogobernua, eta ahal den neurrian ezabatuko dituzte. Eta hau ez da soilik ezker-eskuin klabeetan irakurtzen.

Legaldi honetan, Estatuko gobernua, "munduko ezkertiar eta aurrerakoiena", beraien esanetan, bultzatutako legediak askotan ez ditu errespetatu ez autonomia-egitura ezta eskumen-esparrua ere. Eta hor egon da Euskal Taldea, hor egon de EAJ eraso guzti hauei aurre egiten.

Gaur goizean, Bilboko Justizia Autegiaren aurrean elkartu dira Euskal Herriko alkate eta hautetsiak, makilak eta zumeak altxatuta, Donostiako Eneko Goia eta Bilboko Juan Mari Aburto ere ikusi ditugu, eta hainbat eta hainbat, herritako alkate, euskararen kontrako azken epaia salatu eta gaitzesteko. Gu ere, Eneko, Xabi..., zuek bezalaxe, zutik jartzen gara, eta ozen diogu ez dugula erasorik onartuko!

2019an hasi zen helegiteen bitartez era honetako euskararen kontrako eraso-soka Nafarroan, eta jarraitu egiten du. Urte hauetan, estatuko botereek, eraso jotzen ari dira euskararen kontra. Estatu eraso baten aurrean gaude, gure erakundeek euskara normalizatu eta biziberritzeko hartutako erabakien kontra. Gure Herri borondatea zapaltzea da. Eta ez lehen, ez orain, ez dugu inola ere onartuko. Euskara defenditzen lehen leerroan izango gara Madrilen. Euskadin, hemen, bezala, gaur Bilbon egin dugun bezala. Euskaldunen eta Euskadiren ahotsa, hori gara eta hori da EAJ!!!!

2016an Eusko Legebiltzarrak adostasunez onartutako legearen kontra egiten du epaiak, euskal autogobernuaren aurka. Eta Auzitegi Konstituzionalak, epaile progresista gehiengo diren horretan bi boto partikularrekin soilik onartutako epaia eman du. Horregatik, berriro diot; EAJ euskararen aldeko lehen defentsa leerroa izango da Madrilen.

No solo hablamos de la judicialización de la política, tenemos un sistema judicial que muchas veces desconoce y no comparte la realidad social a la que debe dar servicio, como en el caso de la sentencia contra nuestra ley municipal que capacita a los ayuntamientos vascos para definir sus políticas para la normalización del euskara. Por ello, defendemos que Euskadi tenga un sistema judicial propio.

Otra de las razones para votar al PNV es nuestra forma de hacer política, democrática, entendida como servicio público en favor de la ciudadanía. Hemos dialogado, pactado y acordado; entre otros, la actualización de la Ley del Cupo, la transferencia del Ingreso Mínimo Vital y su coordinación con la Renta de Garantía de Ingresos, hemos concertado nuevos impuestos y hemos logrado el reconocimiento de las selecciones de pelota y surf,

Además de las inversiones en infraestructuras ferroviarias, hidráulicas y en otros proyectos relevantes; y hemos hecho un especial seguimiento a todos estos proyectos y a los fondos europeos, porque en esto también nos jugamos nuestro futuro.

Y hemos sido actores necesarios en la aprobación de leyes que reconocen derechos sociales; como la Ley Trans, la Ley de eutanasia, la ley de infancia, la ley de libertad sexual entre otras.

EAJri botoa emateko arrazoi guztiak hemen ezin aipatu. EAJ Madrilen eta Hemen, Gauden tokian gaudela, gure nortasun politikoa denon onerako Euskadi eraikitzea da. Horretarako zure botoaren indarra behar dugu, Euskadik ahots propioa izan dezan. Uztailak 23an, ez gelditu etxean.

Pentsatu zer dugun jokoan, pentsatu zeinek eraman dezakeen zure ahotsa zuzen eta dependentziarik gabe Madriler, demagogiarik gabe, norik defendatuko duen

EUSKADIREN AHOTSA.
CON VOZ PROPIA.




Aitor
Esteban Bravo
atsegin dut 

sendotasunez Euskadi. Uztailak 23an aukera bakarra EAJ-PNV da, Euskadiren ahotsa!!
Gora Euskadi Askatuta!